



Eman hegoak euskarari



Uharteak eta haurrak

Irudi luke Rousseauk aldarrikatutako berezko ontasun hori gero eta urrutiago dagoela

ARITZ GORROTXATEGI

L eviatan' lanean, Hobbesek gizakia gizakiarentzat otso zela ohartarazi zigunetik, ez dira gutxi izan gizakia- ren berezko ontasun edo gaiztakeriari buruzko eztabaidak. Hobbesek, berez, Plauto komediografo latindarraren 'Asinaria' antzezlanetik atera zuen esaldia. Honela zioen Plautok bertan: «otsoa da gizakia gizakiarentzat» (latinez, «lupus est homo homini»). Ez zen, beraz, kezka berria. 1710ean, aldiz, 'Teodizea' izeneko bere saiakeran, Leibnizek esan zuen mundu posibleen artean hoberena hautatu zuela Jainkoak. Ezaguna da hamarkada batzuk geroago Voltairrek esaldi horri eman zion egurra 'Kandido edo baikortasuna' eleberriaren bidez. Leibnizen

mesedetan esan behar da mundu perfektuaz zuen ideia ez zela hainbeste morala. Ez zuen esan nahi gaizkirik edo indarkeriarik ez dagoenik, mundua arautzen duten lege fisikoak perfektuak direla baizik. Voltairerena argitaratu eta hiru urtera, eztabaida horren ildoari jarraiki, 'Emilio edo Hezkuntzaren gainean' saiakeran Rousseauk adierazi zuen gizakia ona dela eta bere bizioak gaizki antolatutako gizarte-egoera bati eta funtsean faltsua den hezkuntza bati bakarrik egotzi ahal zaizkiola. Rousseau baino apur bat gazteagoa zen Jacques-Henri Bernardin de Saint-Pierre 'Pablo eta Virginia' eleberria kaleratu zuen 1787an, eta harmonian bizi den indarkeriarik gabeko mundu bat isla-

tzen du, elkarlanean oinarritua, baina gizartearen konbentzio eta arauk ondorio tragikoekin usteltzen dutena. Saint-Pierre Rousseauen jarraitzailea zen. Literaturan ere izan du isla eztabaida horrek. Teknologiaren baikortasunean fededunagoa zen testuinguru batean, Jules Vernerren 'Uharte misteriot-sua'n, adibidez, ez dago inolako liskarrik uharte misteriot-sura helden diren protagonisten artean. Bat datoz kontu guztietan, elkarri laguntzen diote, ez da euren arteko tentsio unerik sortzen. Are gehiago, esan daiteke narratzailea une horiek saihesten saiatzen dela, aurkikuntza zientifikoen eta abenturaren mesedetan. Zentzu horretan, nahiko idilikoa da bost protago-

nisten elkarbizitza. Behin baino gehiagotan pentsatuko zenuten zer eraman uharte abandonatu batera, eta ez horrenbeste nor eraman. Robinson Crusoe nahi-koa ondo moldatu zen, bakarrik hasieran, 'Ostiral'en laguntza- rekin hurrena. Uharteez ari gara, baina ontzi bat izan dai- teke uharte baten baliokide ego- kia. Moby Dick harrapatu nahian zihoazen guztiak 'uharte' mo- duko batean bizi ziren 'Pequod' itsasontzian, zibilizaziotik urruti eta baldintza deserosoetan, bai- na, paradoxikoki, zibilizazio hor- rrentzat lehengai bila, hura ero- so bizi zedin. Sarritan erabili izan dira ontziak gizateriaren edo gizartearen metafora bezala, Vernerren eleberri ezagunean baino errealismo eta mingosta- sun handiagorekin, halako egoe- ra batean, liskarrak eta gaizki- ulertuak sortzea baita normale- na.

Bigarren Mundu Gerra os- tean, William Goldingek gordin- ki desmitifikatu zuen haurren xalotasuna 'Eulien ugazaba'n. Ezaguna da Goldingen eleberria- ren argumentua. Haur batzuk hegazkin batean gerratik ihesi doazela, ekaitz batek uharte ba-

karti batera desbideratuko ditu. Pilotua hilik gertatzen denez, be- ren kabuz lortu beharko dute bizirautea. Vernerren egoera idi- likoaz oso bestela, araurik eta mugarik ez dagoenez, gazteen logika eta lasaitasuna desager- tzen doaz pixkanaka, eta giza- kiaren alderdirik basatienea agertzen hasten da. Bi gai nagusi- zeharkatzen dute eleberria: zibilizazioaren eta basakeriaren arteko lehia eta haurren erruga- betasunaren galera. Goldingen nobela kaleratu eta hiru urtera, Kenzaburo Oe idazle japoniar hilberriak ere landu zuen gaia maisuki bere lehen bi eleberrie- tan, 'Ehizakia'n eta 'Erauza ha- zia, fusilatu haurrak' izenbu- ruoetan: atzerritarrari beldu- rra, krudeltasuna, amarrukeria, amorrua... Ez zen askorik urrun- du Goldingen tesietatik. Urte gutxi geroago, Mishimaren 'Atoiontzia' heldu zen, marinel bat idealizatzen zuen gazte ba- ten desengainu bortitza, sinbo- lismo bikoitiz beteko eleberria. Eztabaidak bizirik jarraitzen du oraindik, baina irudi luke Rousseauk aldarrikatutako be- rezko ontasun hori gero eta urrutiago dagoela.

1957ko uda

KARLA FERNÁNDEZ DE GAMBOA VÁZQUEZ

Idoia Garzesek Lizardi saria irabazi zuen 2018an 'Hari single bat' (Erein, 2019) li- buruagatik, haur eta gazteentzat argitara- tu zuen lehena. 'Mendiko gaitza' (Elkar, 2020) helduentzako nobelagatik Zubika- rai saria 2019an jaso ondoren, idazle gisa duen trebetasuna berriz ere erakutsi du gazteentzako eleberri labor ho- netan.

'Hari single bat' liburuan bezala, 'Kukuaren kantua'n Garzesek base- rri eta landa ingurunera eramaten gaitu, baina oraingoan zuzenean 60ko hamarkadaren amaieran gi- rotzen du kontakizuna. Hasieratik irakurlearen interesa piztea lor- tzen du 'in extrema res' egitura nar- ratibo batekin; izan ere, lehen orrialdeetan argitzen da amaiera. Protagonista gazteak kontatzen digu Jaxinto agurea, bere lagun mina, hil egin dela. Martinek elkar ezagu- tu zuten eguna gogora ekartzen du

Jaxintok hil aurretik berari utzitako kaxa irekitzen duenean. Agurearen jaka ikus- tean, Martin Jaxintorekin 1957ko uda har- tan bizitakoaz eta ikasitakoaz oroitzen da. Adibidez, Jaxintok txoriei buruz jakin dai- tekeen guztia irakatsi ziola, bizitza batzue- tan gogorra eta krudela izan daitekeela, ikasketak edukitzeak beste bizimodu bat izateko aukera ematen duela edota ez da- goela itsu okerragorik bere aurreiritzieta- tik eta ezjakintasunetik haratago ikusi nahi ez duena baino.



KUKUAREN KANTUA
IDOIA GARZES
ALDAZABAL/B
ELATZ
Elkar. 72 orr.
11,00 euro

Horrela, testu aberats, fin eta onest ba- ten bidez, irakurleari aukera ema- ten zaio, protagonistak egiten duen bezala, adiskidetasunaz, anima- liekiko maitasunaz, emigratioaz, bizitzaz eta giza kondizioaz haus- nartzeko; une historikoa aldatu arren, gai horiek baitira gaur egun ere gazte zein helduok kezkatzen gaituztenak. Gainera, Belatzen zuri-beltzeko ilustrazioetan kon- takizun honen sentiberatasuna eta pertsonaien emozioak prime- ran nabarmentzen dira. Bete-be- teko liburua da hau, gazte irakur- lea errespetuz tratatzen duena: «Tixikia izan nintekeelako, baina ez horratio tentela».

Balioak oinarrian

ARANTXA URRETABIZKAIA



A spalditik entzun eta irakurtzen dut gure gizarteak ahaztu egin di- tuela balioak, ez dituela gaurkot- zen aspaldiko balioak, hezkuntzak balio- tan oinarritu behar duela, balioak jarri behar direla edozein ekintzaren mui- nean, galdu egin direla garai bateko ba- lioak.

Azken honek harritzen nau bereziki. Balioak galdu egin ditugula. Egiten dut haurtzaroan irakatsi zizkidaten balioen zerrenda eta, gutxienez, hauek ateratzen zaizkit: emakumeon mendekotasuna gi- zonezkoekiko, eliza katolikoaren nagusi- tasun ahalguztiduna, militarren lehenta- suna gizarte zibilarekiko, agintzen due- nari zor zaion otzantasuna, bide nagusi- tik pitin bat aldentzen denak merezi duen bazterkeria, zurion nagusitasun be- rezkoa beste azal kolorea dutenekiko, gazteleraren nagusikeria beste hizkun-

tzekiko, derrigorrezko arauak betetzen ez zituzten familien kontrako arbuioa, auzo- koa zelatatu eta salatzeke betebeharra...

Zerrenda hori izugarri luza daiteke, baina bere horretan argi eta garbi adie- razten du ze balio ziren nagusi joan den mendearen erdialdean hemen, eskolan, kalean, elizan, hedabideetan, are etxee- tan. Batzuk gure etxean bultzatzen ziren balioekin ordezkatuak, beste batzuk gu- rean ere errespetatzen zirenak. Ez dut paradisu- rik ezagutu balioei dagokienez edo, ezagutzekotan, gaur aurkitzen dut, ez atzo. Orduan, zergatik errepikatzen da hainbeste garai bateko balio 'onak' galdu ditugula?

Kontua ez da hezkuntzak balioetan oi- narritu behar duela. Ez, hezkuntza beti oinarritzen da balioetan. Kontua da ze balio hobesten dugun, zein gaitzesten. Bizitza osoa daramagu batzuek jasotako balio haien kontra borroka egiten, balio haien sustraiak noraino helden diren ikusten, jaso eta ezabatutako nola or- dezkatu asmatu nahian.

Bai, hezkuntzak, etxeakoak nahiz esko- lakoak, balioetan oinarritu behar du, ez, ordea, edozein baliotan.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Bar Gloria

Nerea Ibarzabal. Susa

2 Dumitru

Koldo Izagirre. Erein

3 Eraikuntzarako materiala

Eider Rodriguez. Susa

4 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

EZ FIKZIOA

1 Pantailen garaipena

Iñigo Martinez. Elkar

2 Axularen gerizapean

Kepa Altonaga. Pamiela

3 Egunero behar genuen

Imanol Murua. Elkar

4 Euskal herriko 40 emakume

Batzuk. Beta ediciones